

Izenburua	<i>Hedatu</i>
Formatua	Unitate didaktiko sorta
Egilea	UEMA
Kontaktua	https://www.uma.eus/harremana/ / 946279195 (Aulesti, Bizkaia) / 943260372 (Oiartzun, Gipuzkoa) / 943816699 (Azpeitia, Gipuzkoa)
Nori zuzendua	DBH 3 eta DBH 4ko ikasleei (UEMAko kide diren herritako ikastetxeok. Salbuespenak egin ditzakete, baina bideragarritasuna ikertu egin beharko lukete).
Helburuak	<p>Unitate didaktiko bakoitzak helburu bat du:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <u>DBH 3ko 1. unitatea</u>: hizkuntzen biziraupena eta kalitatezko iraunkortasun orekatua desberdintzea. Euskara bietako zein egoeratan dagoen hausnartzea eta bere iraupenari buruzko gogoeta egitea, inguruko beste hizkuntzak erreferentziatzat hartuta. • <u>DBH 3ko 2. unitatea</u>: hizkuntzen galera prozesuak aztertzea, atzean egon ohi diren arrazoiak ezagutzea, eta horiek euskararen kasuan zeintzuk izan ziren jakitea. • <u>DBH 3ko 3. unitatea</u>: hizkuntzen berreskuratze prozesuak aztertzea, atzean egon ohi diren pausoak ezagutzea eta horiek euskararen kasuan zeintzuk izan ziren jakitea. Hizkuntza berreskuratzeko herritarren nahia ezinbestekoa dela azpimarratzea. • <u>DBH 3ko 4. unitatea</u>: globalizazioaren arriskuez jabetu, euskaraz bizitzeak eta sortzeak mundura irteteko ateak ez dituztela ixten ikusi eta bertako kultura indartzearen aldeko kontzientzia piztea, mundura irteteko ere erakargarriagoa delako. • <u>DBH 3ko 5. unitatea</u>: Euskal Herriko egoera soziolinguistiko desberdinak ezagutu eta norbere herriko egoera orokortasunean kokatzea. Baita udalerrri euskaldunek euskararen biziberritzean duten lidergo rola identifikatzea ere

	<ul style="list-style-type: none"> • <u>DBH 3ko 6. unitatea</u>: arnaguneen ideia ezagutzea eta eguneroko bizimoduarekin lotzea, euskaraz funtzionatzen ez duten tokiak identifikatuz. Hala ez den kasuetan, hausnarketa bultzatzea ea euskalduntzeko zer egin behar den proposatuz. • <u>DBH 4ko 1. unitatea</u>: Euskal Herriko kultur aniztasunaren kontzientzia hartzea eta euskarak, berezko hizkuntza izanik, aniztasun horren elkargune eta lotura izateko duen funtzioaz jabetzea. • <u>DBH 4ko 2. unitatea</u>: hizkuntza-ekologiaren diskurtso orokorra ezagutzea, eta hizkuntzen aniztasuna, iraunkortasuna eta babes neurriak modu positiboan ulertzea. • <u>DBH 4ko 3. unitatea</u>: euskararen arnagune funtzional eta geografikoak bereizten jakitea, eta arnagune geografikoek Euskal Herri mailan eta euren inguru hurbilean duten eraginaz jabetzea. • <u>DBH 4ko 4. unitatea</u>: arnaguneetako herritarrek euskararen erabileran jarrera aktiboa modu naturalean izan dutela ezagutzea, eta hori euren eguneroko bizimoduan txertatu dezaketela ikustea. • <u>DBH 4ko 5. unitatea</u>: subsidiaritate printzipioa zer den ezagutzea, ikasleek euren bizimoduan nola ezarriko luketen hausnartzea eta hartutako erabakiek inplikazio sozialak dituztela ohartzea. • <u>DBH 4ko 6. unitatea</u>: egungo egoera legeetik abiatuta, hizkuntzen ofizialtasuna eta berezkotasuna bereizten ikastea. Berezkoa izateak euskarari lehentasuna eman beharko liokeela ulertzea.
Metodologia	Unitate bakoitzak urrats desberdinak izango ditu, baina oro har, aurrezagutzak aktibatuko dira eta unitatean zehar irakaslearen azalpenak eta bideoak taldeka egindako ariketekin aldizkatuko dira, azken horiek ondoren talde handian partekatzen direlarik.
Denboralizazioa	Unitate bakoitzak bere denboralizazioa du, baina, oro har, ordubetean burutzekoak dira.
Eranskinak	Hezkuntza-proiektua azaltzen duen txostena (DBHko edukia: 10-12)

	<p>orr.):</p> <p>https://www.uema.eus/wp-content/uploads/2019/09/HEDATU-txosten-laburtua.pdf</p> <p>Adibide gisa, DBH 3ko 2. unitate didaktikoko irakaslearen fitxa:</p> <p>https://www.uema.eus/wp-content/uploads/2019/09/DBH3_2-irakasleak.pdf</p>
<p>Oharrak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Lanketa ikasleekin irakasleak egingo duenez, Hezkuntza-proiektua martxan jartzen duten ikastetxeetako irakasleek formakuntza jasoko dute. Era berean, beharrezkoa den materiala (irakaslearen fitxak, ikaslearen fitxak, material osagarria....) UEMAk jarriko du irakaslearen esku. ● Unitate hauek ez daude diseinatuta euskarako irakasleak soilik lantzeko, tutoreek eta beste mintegietako irakasleek ere landu dezakete, zeharlerrotasuna eman ez gaiari, ikasleentzat irakasle erreferenteak areagotuz eta ikastetxearen norabidea markatuz. ● Idealena maila bakoitzean 6 unitateen lanketa egitea bada ere, ezingo balira guztiak landu, UEMAk baditu unitate horien artean garrantzitsuen direnak identifikatuta.